

## Bigarren Hezkuntzako 550 gaztek baino gehiagok parte hartuko dute “Hitz kolpez” programan

50 antzezpen emanaldi egingo dira, Arabako gazteak indarkeria matxistaren aurrean sentsibiliza daitezen saiatzeko

**Gasteiz, 2019ko azaroaren 15a.** - Probintziako 15 ikastetxetako 500 gazte baino gehiago joango dira 2019ko “Hitz kolpez” programarako prestatu den antzerki dramatizazioaren 50 emanaldietako batera. Programa horren helburua da Arabako gazteak indarkeria matxistaren aurrean sentsibilizatzea.

Egin diren bost edizioetan, Gazteriaren Foru Erakundeak antolatu du programa hori, AFAko Berdintasun Zerbitzuarekin lankidetzan eta, aurten, Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzua batu zaie. Hori dela eta, gaur prentsaurrekoan aurkeztu dute Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu eta GFeren arduradunak, Nerea Melgosa AFAko Berdintasunaren zuzendariak eta Estitxu Pereda Gasteizko Udaleko Alkatetza zuzendariak.

50 emanaldi egingo dira Ibaiondo gizarte etxeko Félix Petite antzokian, azaroaren 20tik abenduaren 12ra bitartean.

Del Valek adierazi duenez, “Parte hartuko duten gazteek ibilbide bat egingo dute desparekotasunean eta indarkeria matxistan zehar, hainbat egoeraren bidez, zeinek ez dituzten soilik islatuko haien agerpenik nabarmenenak, ezpada identifikatzen hain errazak ez diren diskriminazio moduak legitimatu eta naturalizatzen dituzten mezuak eta diskurtsoak ere; horri esker, ekimen bikaina da, antzerkiaren bitartez sentsibilizazio eta kontzientziazio lana egiten duelako”.

Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren zuzendariak programa horren balioa nabarmendu du, eta beharrezkoa dela esan du; izan ere, “gure gizarteko biztanlerik gazteenengan eragiten du, hain zuzen ekitaterik gabeko rola, sexistak eta batzuetan bortitzak errepikatzen jarraitzen duten kolektiboarengan”. Nerea

Melgosak azpimarratu du programan parte hartu dutenen artean % 54k onartu zuela gelan indarkeriazko egoeraren bat bizi izan duela, eta 14-15 urteko gazteen % 13k indarkeria jasan izan duela bikote harremanean. “Beste kolektibo batzuen artean, hain zuzen biztanle gazteenak, neska-mutilak, hartuko ditugu lehentasuntzat datozen urteetan Arabako Foru Aldundiaren politiketan, indarkeria matxistarekiko sentsibilizatzeko gure jarduerak egiteko”, adierazi du.

Bestalde, Gasteizko Udaleko Alkatetza zuzendariak indarkeria matxistari aurrea hartzeko Udalaren estrategia orokorraren barruan sartu du lankidetzara hori. “Ekimen hori erakargarria da hainbat alderdi direla eta: duen ikuspegia, proposatzen duen lan metodologia, dituen helburuak, norentzat prestatu den eta dituen diseinua eta egitura.”

### **Programa**

2019an, “Hitz kolpez” programaren bosgarren edizioa egingo da, eta probintziako bigarren hezkuntzako 10 bat zentrotako batez beste 500 gaztek parte hartu dute urteko.

Lehenengo edizioan, 2015ekoan, esku hartze bat egin zen ikastetxeetan eta leku publikoetan, indarkeria matxistaren, eskola jazarpenaren eta ziberjazarpenaren aurrean sentsibilizatzeko asmoz. 2016an, 2017an eta 2018an, proiektua ikastetxeetara baino ez zen zuzendu, eta ikasleekin mahai-inguru bat egin zen saioaren ostean. Halaber, irakasleei materiala helarazi zitzaizen indarkeria mota ezberdinen gaiari ekiten laguntzeko.

2019ko edizio honetan, beste era batean eman nahi izan zaio amaiera proiektuaren 5 urteko lehen zikloari eta, horretarako, antzerkia sartu da eta batez ere bikote harremanen barruko indarkeria matxista hartu da ardatz.